Item 1.- To identify the basic ideas in oral presentations on familiar subjects from the academic field, and express them orally or in writing.

Item 2.- To select relevant information in various kinds of oral texts from a variety of spheres of use to achieve the aim of listening and use the information selected for the proposed purposes (research, activities, etc.).

Item 3.- To set out, argue and contrast their ideas in conversations and discussions led by the teacher, participating actively, making relevant, comprehensible contributions and displaying an acceptable level of self-control, for cooperative work in carrying out common tasks or in developing knowledge.

Item 4.- To talk appropriately in familiar situations of everyday life showing respect for others regardless of their social, physical or cultural characteristics, so as to develop a satisfactory degree of interpersonal communication.

Item 5.- To perform clear, well-structured simple oral presentations on academic subjects, planning them beforehand and using various presentation techniques (audiovisual, CIT, etc.).

Item 6.- To locate and select relevant information to achieve the aim of reading, showing an acceptable degree of initiative, independence and effectiveness in the use of different sources of information.

Item 7.- To infer the gist of various kinds of written texts from various spheres of use and express this orally or in writing.

Item 8.- To interpret the meaning of f various kinds of written texts from various spheres of use by using reflective reading strategies.

Item 9.- To critically interpret the content and form of ideologically simple texts with familiar subjects (especially from the Batazb.), grasping their meaning and assessing their suitability in accordance with moral and ethical norms, and provide a personal opinion on this.

Item 10.- To plan different common simple written texts from various spheres of use, answering to the parameters of the context and the communicative aims, by using their own knowledge and a variety of reference sources and showing decision-taking initiative.

Item 11.- To produce different common simple written texts from different spheres of use, tailoring them to meet the communicative situation and respecting the principles of coherence, cohesion, correctness and variety and recognising the need for personal effort to carry out the task.

Item 12.- To use knowledge about how linguistic elements work at different levels of the text to interpret other texts and to produce and check their own.

Item 13.- To use knowledge about basic socio-linguistic concepts to critically interpret a variety of linguistic situations in the world especially those involving English, appreciating the value of their own multilingual competency and displaying a respectful positive attitude towards the multilingual and multicultural reality that they are surrounded by.


Item 14.- To express their own experiences, feelings, reflections, etc. creatively and showing aesthetic sensibility by producing oral and written texts of literary intention of the most common kinds, taking works of literature as models.

Item 15.- To use literature as a source of pleasure, of knowledge of the world and to construct their own personal, cultural & social identity.

Item 16.- General evaluation of the proposal for English.


1.6.1.- Konpetentzia espezifikoko eta ikastetxe mota

Ikastetxe-mota		ikes 1	ikes 2	ikes 3	ikes 4	ikes 5	ikes 6	ikes 7	ikes 8	ikes 9	ikes 10	ikes 11	ikes 12	ikes 13	ikes 14	ikes 15	ikes 16
1 ikastola	Batazb.	4,86	4,70	4,55	4,81	4,39	4,63	4,52	4,62	4,21	4,61	4,71	4,36	4,39	3,98	4,00	4,49
	N	43	44	44	42	44	43	44	42	43	41	42	44	44	44	44	44
	Desb. tip.	,351	,509	,548	,455	,538	,536	,549	,623	,804	,586	,596	,613	,655	,698	,715	,675
3 kristau eskola	Batazb.	4,53	4,31	4,08	4,56	3,78	4,35	4,36	4,31	3,89	4,16	4,47	4,03	4,01	3,68	3,68	4,15
	N	76	77	77	77	77	77	73	75	76	77	77	76	77	77	77	75
	Desb. tip.	,663	,730	,929	,678	,912	,739	,632	,716	,858	,844	,620	,816	,819	1,044	,938	,651
Denera	Batazb.	4,65	4,45	4,25	4,65	4,00	4,45	4,42	4,42	4,01	4,31	4,55	4,15	4,15	3,79	3,79	4,27
	N	119	121	121	119	121	120	117	117	119	118	119	120	121	121	121	116
	Desb. tip.	,591	,683	,839	,619	,847	,684	,605	,698	,849	,792	,620	,763	,782	,942	,875	,677




1.6.2.- Konpetentzia espezifikokoak eta lurraldea

lurraldea		ikes 1	ikes 2	ikes 3	ikes 4	ikes 5	ikes 6	ikes 7	ikes 8	ikes 9	ikes 10	ikes 11	ikes 12	ikes 13	ikes 14	ikes 15	ikes 16
1 Araba	Batazb.	4,60	4,50	4,20	4,70	4,00	4,60	4,60	4,60	4,11	4,20	4,70	4,30	4,50	3,90	3,80	4,11
	N	10	10	10	10	10	10	10	10	9	10	10	10	10	10	10	9
	Desb. tip.	,516	,527	1,033	,483	1,054	,699	,516	,699	,928	1,229	,483	,823	,707	,994	1,033	,782
20 Gipuzkoa	Batazb.	4,70	4,49	4,26	4,69	4,11	4,47	4,53	4,47	4,00	4,42	4,58	4,12	4,16	3,63	3,70	4,33
	N	57	57	57	55	57	57	55	55	56	55	55	57	57	57	57	55
	Desb. tip.	,533	,658	,835	,540	,795	,734	,573	,663	,809	,738	,599	,867	,819	,993	,844	,668
31 Nafarroa	Batazb.	5,00	4,80	4,60	5,00	4,20	4,80	4,60	4,60	4,20	4,75	5,00	4,20	4,60	4,00	3,80	5,00
	N	5	5	5	5	5	5	5	5	4	5	5	5	5	5	4	
	Desb. tip.	,000	,447	,548	,000	,447	,447	,548	,548	,837	,500	,000	,447	,548	,707	,447	,000
48 Bizkaia	Batazb.	4,55	4,37	4,20	4,55	3,86	4,35	4,23	4,30	3,98	4,18	4,45	4,15	4,02	3,92	3,90	4,17
	N	47	49	49	49	49	48	47	47	49	49	49	48	49	49	49	48
	Desb. tip.	,686	,755	,841	,738	,890	,635	,633	,749	,901	,755	,679	,652	,750	,886	,918	,663
Denera	Batazb.	4,65	4,45	4,25	4,65	4,00	4,45	4,42	4,42	4,01	4,31	4,55	4,15	4,15	3,79	3,79	4,27
	N	119	121	121	119	121	120	117	117	119	118	119	120	121	121	121	116
	Desb. tip.	,591	,683	,839	,619	,847	,684	,605	,698	,849	,792	,620	,763	,782	,942	,875	,677



1.6.3.- Konpetentzia espezifikoak eta hizkuntz eredia

eredua		ikes 1	ikes 2	ikes 3	ikes 4	ikes 5	ikes 6	ikes 7	ikes 8	ikes 9	ikes1 0	ikes 11	ikes 12	ikes 13	ikes 14	ikes 15	ikes 16
1 A	Batazb.	4,45	4,18	4,00	4,41	3,68	4,23	4,24	4,23	3,90	4,14	4,45	4,00	4,14	3,82	3,86	4,00
	N	22	22	22	22	22	22	21	22	21	22	22	22	22	22	22	20
	Desb. tip.	,739	,733	,816	,734	,780	,685	,700	,685	,831	,941	,596	,690	,710	,795	,889	,562
2 B	Batazb.	4,26	4,05	3,89	4,32	3,68	4,16	4,22	4,11	3,63	3,79	4,16	3,74	3,79	3,47	3,32	4,05
	N	19	19	19	19	19	19	18	18	19	19	19	19	19	19	19	19
	Desb. tip.	,806	,848	1,150	,820	1,057	,958	,647	,900	,831	,918	,765	,933	,918	1,219	,946	,524
3 D	Batazb.	4,84	4,62	4,38	4,80	4,25	4,63	4,51	4,57	4,22	4,53	4,66	4,33	4,29	3,94	4,02	4,50
	N	51	52	52	51	52	51	51	51	51	49	50	52	52	52	52	50
	Desb. tip.	,367	,565	,796	,448	,764	,528	,579	,640	,757	,616	,593	,617	,723	,826	,727	,614
Denera	Batazb.	4,63	4,40	4,19	4,61	4,00	4,43	4,39	4,40	4,02	4,28	4,51	4,13	4,15	3,82	3,84	4,29
	N	92	93	93	92	93	92	90	91	91	90	91	93	93	93	93	89
	Desb. tip.	,624	,709	,900	,645	,872	,700	,631	,728	,816	,821	,656	,741	,779	,920	,851	,625



1.7.- EMAITZEN LABURPENA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

1.7.1.- Emaizten laburpena

Arloko kompetentzia orokorrak

Hizkuntzak eta Literatura arloan planteatutako 6 kompetentzia orokorretatik, denak oso ondo onartuak izan dira kontsultatutako irakasleengandik, 4 baino altuagoak diren balioak lortuz (balioak 1etik 5era izan daitezkeela kontutan hartu behar da). Salbuespena 5 kompetentzia orokorra da. Kasu honetan balorazioen batezbestekoa 3,95 da. Beraz, kompetentzia hau berrikusi beharko litzateke, alegia, barnean sartzeko, aldatzeko edo alde batera uzteko posibilitateak aztertu beharko lirateke.

Aztertutako hiru aldagaien arabera (ikastetxe-mota, lurraldea eta hizkuntz eredua), kompetentzia orokorren balorazioetan antzeman ditugun diferentzietan dagokienez zera aipatu daiteke:

- Lurralde desberdinetako irakasleen artean ez dago diferentzia esanguratsurik kompetentzia orokorre emandako balorazioetan, nahiz eta kompetentziaren batean diferentziak azaldu.
- Ikastetxe-motaren arabera, 4 eta 5 kompetentzietan egindako balorazioak estatistikoki adierazgarriak dira. Aurretiko tauletan ikus daitekeen bezala 4 eta 5 kompetentziak ikastoleetako irakasleengandik hobeto baloratutako izan dira kristau eskoletako irakasleengandik baino¹. Dena den, nahiz eta kristau eskoletan balorazioak baxuagoak izan, balorazio horiek 4 baino altuagoak direla azpimarratu behar da, alegia, kompetentzia horiek onartzen direla.
- Azkenik, hizkuntz eredu desberdinetako ikastetxeen irakasleek egindako balorazioei begiratu gero, aurretiko tauletan ikus daitekeen moduan, 4 eta 5 kompetentzia orokorren kasuan diferentzi adierazgarriak ematen dira. Kompetentzia horiek balorazio altuago jaso dute D eremuan diharduten irakasleen eskutik. Halaber, kompetentzia orokor guztien artean 5 kompetentzia gutxien baloratua izan dena kontutan hartu behar da.

Euskara eta Literatura: kompetentzia espezifikokoak

Euskara eta Literatura arloko 21 kompetentzia espezifikoei buruz irakasleek egindako azterketaren emaitzek, orokorrean ondo onartuak izan direla erakusten dute, zeren eta kasu gehienetan batezbesteko balioak 4 baino altuagoak dira. Dena den, berrikuspenera behar duten 4 kompetentzia badaude (16, 17, 18 eta 19 kompetentziak). Kasu hauetan lortutako batezbesteko balioak 4 baino baxuagoak izan dira eta honek irakasleen aldetik onarpen orokorra ez du bermatzen.

Aztertutako hiru aldagaien arabera (ikastetxe-mota, lurraldea eta hizkuntza eredua), kompetentzia espezifikoen balorazioetan antzeman ditugun diferentzietan dagokienez zera aipatu daiteke:

- Lurralde desberdinetako irakasleen artean ez dago diferentzia estatistikorik kompetentzia espezifikoei emandako balorazioetan.
- Ikastetxe-motaren arabera, egindako balorazioak estatistikoki adierazgarriak dira kasu askotan. Aurretiko tauletan ikus daitekeen bezala 6, 7, 9, 10, 11, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, eta 20 kompetentzia espezifikoko ikastoleetako irakasleek balorazio altuagoak egin dituzte kristau eskoletako irakasleek baino. Dena den, nahiz eta kristau eskoletan balorazioak baxuagoak izan, balorazio horiek 4 edo altuagoak dira, 11, 16, 17, 18, 19 eta 20 kompetentzietan izan ez ezik.
- Era berean, hizkuntz eredu desberdinetako ikastetxetako irakasleek egindako balorazioei begiratu gero, 2, 5, 7, 11, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19 eta 20 kompetentzia espezifikoen kasuan diferentzia adierazgarriak ematen dira. Kasu hauetan guztietan, D ereduko irakasleek kompetentziak hobeto baloratu dituzte.

Gaztelania eta Literatura: kompetentzia espezifikokoak

Gaztelania eta Literatura arloko 19 kompetentzia espezifikoei buruz irakasleek egindako azterketaren emaitzek, orokorrean ondo onartuak izan direla erakusten dute, zeren eta kasu gehienetan batezbesteko balioak 4 baino altuagoak dira. Dena den, 4 baino baxuagoa den batezbesteko balioa (3,9) lortu duen 17 kompetentzia espezifikoa dugu. Honek, kompetentzia horrekiko irakasleen aldetik onarpen orokorrik ez dagoela pentsarazten digu.

Aztertutako hiru aldagaien arabera (ikastetxe-mota, lurraldea eta hizkuntza eredua), kompetentzia espezifikoen balorazioetan antzeman ditugun diferentzietan dagokienez zera aipatu daiteke:

- Lurralde desberdinetako irakasleen artean ez dago diferentzia estatistikorik kompetentzia espezifikoei emandako balorazioetan.
- Ikastetxe-motaren arabera, egindako balorazioak estatistikoki adierazgarriak dira kasu askotan, alegia, kasuen erdia baino gehiagotan. Aurretiko tauletan ikus daitekeen bezala 2, 4, 5, 6, 10, 11, 12,

¹ Nahiz eta 4 kompetentzia orokorren kasuan balorazio altuena ikastetxe publikoetako irakasleek egindakoa izan, iruditu zaigu datu hau ezin dela aintzat hartu alderaketa honetan, erantzun duten ikastetxeen artean ikastetxe publiko bakarra delako.

13, 14, eta 19 konpetentzia espezifikoak ikastoletako irakasleek balorazio altuagoak egin dituzte kristau eskoletako irakasleek baino. Dena den, nahiz eta kristau eskoletan balorazioak baxuagoak izan, balorazio horiek 4 edo altuagoak dira.

- Era berean, hizkuntz eredu desberdinetako ikastetxetako irakasleek egindako balorazioei begiratuz gero, 2, 4, 5, 6, 7, 11, 12, 13, eta 14 konpetentzia espezifikoen kasuan diferentzia adierazgarriak ematen dira. Kasu hauetan guztietan, D ereduko irakasleek konpetentziak hobeto baloratu dituzte.

Frantsesa eta Literatura: konpetentzia espezifikoak

Lehenik, Frantsesa eta Literatura arloko inkestan jasotako erantzunen kopurua 18 dela esan behar da, alegia, beste hizkuntzetan baino kopurua askoz baxuagoa. Halaber, alderaketak egiteko uanean orekarik gabeko egoerak sortzen dira. Erantzunak hiru lurraldetan soilik jaso dira (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa); erantzunen kopuru gehiena kristau eskoletan jaso dira eta nagusitzen den eredia A eredia da. Ikusi daitekeenez, erantzunen banaketak azterketan parte hartu duten ikastetxeen banaketari ez dio jarraitzen.

Hau dela eta, konparaketak egiterakoan soilik emaitza deskribatzaileak aurkezten dira.

Frantsesa eta Literatura arloko 19 konpetentzia espezifikoei buruz irakasleek egindako azterketaren emaitzek, orokorrean ez direla oso ondo onartuak erakusten dute, zeren eta kasu gehienetan batezbesteko balioak 4 baino baxuagoak dira. Dena den, badaude konpetentzia batzuk (2, 4, 7, 10, 12 eta 14 konpetentziak) 4 baino batezbesteko puntuazio handiagoarekin baloratuak izan direnak. Beraz, arlo honetako konpetentzia gehienak berrikusi beharko lirakekeela ondoriozta behako genuke, aurreko paragrafoan azaldutako zehaztasunak kontuan izanik.

Ingelesa: konpetentzia espezifikoak

Ingelesa arloko 16 konpetentzia espezifikoei buruz irakasleek egindako azterketaren emaitzek, orokorrean ondo onartuak izan direla erakusten dute, zeren eta kasu gehienetan batezbesteko balioak 4 baino altuagoak dira. Dena den, berrikuspena behar duten 2 konpetentzia badaude (14 eta 15 konpetentziak). Kasu hauetan lortutako batezbesteko balioak 4 baino baxuagoak izan dira eta honek irakasleen aldetik onarpen orokorra ez du bermatzen.

Aztertutako hiru aldagaien arabera (ikastetxe-mota, lurraldea eta hizkuntz eredia), konpetentzia espezifikoen balorazioetan antzeman ditugun diferentziei dagokienez zera aipatu daiteke:

- Lurralde desberdinetako irakasleen artean ez dago diferentzia estatistikorik konpetentzia espezifikoei emandako balorazioetan.
- Ikastetxe-motaren arabera, egindako balorazioak estatistikoki adierazgarriak dira kasu batzutan. Aurretiko tauletan ikus daitekeen bezala 1, 2, 3, 5, 10 eta 16 konpetentzia espezifikoetan diferentzia adierazgarriak suertatu dira. 6 kasu hauetan ikastoletako irakasleek balorazio altuagoak egin dituzte kristau eskoletako irakasleek baino. Dena den, nahiz eta kristau eskoletan balorazioak baxuagoak izan, balorazio horiek 4 edo altuagoak dira, 5 konpetentzian izan ez ezik.
- Era berean, hizkuntz eredu desberdinetako ikastetxetako irakasleek egindako balorazioei begiratuz gero, 1, 2, 4, 5, 10, 12, 15 eta 16 konpetentzia espezifikoen kasuan diferentzia adierazgarriak ematen dira. Kasu hauetan guztietan, D ereduko irakasleek konpetentziak hobeto baloratu dituzte. Zortzi kasu hauen artean bigarren balorazio altuena kasu gehienetan, B ereduko irakasleek egindakoa da.

1.7.2.- Hobekuntza proposamenak

“Hizkuntzak eta Literatura” curriculum proposamenaren Sarreran aipatzen den bezala, badira proposamen hori nabarmentzen duten aukera batzuk:

Batetik, hizkuntzaren planteamendu komunikatiboaren eta diskurtsiboaren aldeko aukera dago: mintzaera eta ulermen konpetentziak, hizkuntza eta bere erabilera zuzena, kontzientzia soziolinguistikoa, kultura literarioa eta irakurmena, eta baita literatura-sormenerako gustua ere. Esan daiteke proposamen honen bidez jarrera kontrajarriak gaitutako lituzkeen hizkuntzaren **planteamendu integrala** egiten dela.

Proposamenaren beste ezaugarrietariko bat eleaniztasunaren aldeko aukera da, euskara erakusketa-ikasketa prozesuaren ardatz bezala hartuta. Aukera hori **curriculum integratuaren** planteamendutik egiten da. Honetan, alorraren konpetentzia orokorrak, ikuspegi metodologikoa eta eduki-multzoen definizioa, eta baita oinarritzko edukien aukera-irizpideak ere, ia komunak dira curriculumeko hizkuntza guztientzat, era honetara hizkuntza guztien garapen osagarria bermatzen delarik, baina, aldi berean, hizkuntza bakoitzak bere-bereak dituen elementuak bereiztuz.

Azkenik, hizkuntzen mailaketaz egiten den proposamena azpimarratuko dugu, **Hizkuntzen Europako Erreferentzia-marko Bateratua** delakoaren irizpideei jarraituz: B2 euskararentzat eta hizkuntza koofizial

edo ofizialentzat (gaztelania eta frantsesa), B1 lehen atzerri-hizkuntzarentzat; A2 bigarren atzerri-hizkuntzarentzat.

Pentsatzen dugu aipaturiko elementuak konbinatzen dituen Hizkuntz planteamendua egitea interes eta gaurkotasan handiko ekarpena dela, baina berria ere bai aldi berean, eta ez zen zaila erresistentziak egongo zirela igartzea. Baina, hala ere, "Emaiza kuantitatiboen laburpena" (1.2.3.) sailean ikus daitekeenez, ona izan da Proposamenak orokorrean jaso duen balorazioa, kompetentzi orokorrena zein bereziena, hezkuntza-sare, hezkuntza-eredu eta lurralde ezberdinen aldetik.

1.7.2.1.- **Kompetentzia orokorrak**

Guztientzat komunak diren 6 kompetentzia orokorrak oso onartuak izan dira, batezbesteko balioak 4tik gorakoak izan baitira (kontu izan 1etik 5era arteko balioak onartzen dituela eskalak), 5. kompetentzian izan ezik (3,95eko batezbestekoa).

- 1 Kompetentzia orokorra, batezbestekoa: 4,55
- 2 Kompetentzia orokorra, batezbestekoa: 4,49
- 3 Kompetentzia orokorra, batezbestekoa: 4,3
- 4 Kompetentzia orokorra, batezbestekoa: 4,24
- 5 Kompetentzia orokorra, batezbestekoa: 3,95
- 6 Kompetentzia orokorra, batezbestekoa: 4,15

Emaiza hauek garbi adierazten dute proposaturiko kompetentzia orokorrek izan duten onarpen maila.

Kompetentzia orokorrak xeheago aztertzen baditugu, konturatuko gara ahozko ulermenarekin eta mintzaerarekin lotutako **1 eta 2 kompetentzia** orokorrek onarpen maila zabala dutela herrialde guztietan, A-B-D eredueta zentroetan eta hezkuntza-sare ezberdinetan.

Kompetentzia orokorrak	Lurraldeak				Hizkuntza ereduak			Hezkuntza sareak	
	Araba	Bizkaia	Gipuzk	Nafarroa	A	B	D	IK	KE
1	4.08	4.44	4.74	4.71	4.43	4.74	4.61	4.57	4.55
2	4.00	4.35	4.70	4.86	4.22	4.68	4.61	4.59	4.43

Datu honek oso ongi adierazten du guztiz ados daudela ebaluaketan parte hartu duten herrialde, hizkuntza-eredu eta hezkuntza-sare guztiek, euskaraz, gaztelaniaz edo frantsesaz erabiltzaile independentearen maila (B2) bultzatuko duen hizkuntza-ereduarekin, eta erabiltzaile independentearen maila (B1) Europako hizkuntza frankoan, eta oinarritzko erabiltzailearena beste hizkuntza batean. Oso kontuan izan beharreko datua da, gaur egungo A, B eta D hizkuntza-ereduak gaindituko dituen hizkuntza-politika eleanitz eta integratzaile baten aldeko planteamendua egiteko orduan.

Hizkuntza sistema gisa hartzen duen gogoeta garrantzi handikotzat jotzen da (4,3ko batezbestekoa) eta aho batez onartzen da aldagai guztietan (lurraldeak, hizkuntza-ereduak eta hezkuntza-sareak).

Kompetentzia orokorrak	Lurraldeak				Hizkuntza-ereduak			Hezkuntza sareak	
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	A	B	D	IK	KE
3	4.00	4.25	4.43	4.14	4.13	4.26	4.41	4.43	4.22

Gure iritziz, balorazio on eta adostasun maila handi horrek esan nahi du gaindituta dagoela hizkuntzaren komunikazio eta gramatika ikuspegiaren arteko dikotomia, eta onartuta dagoela gogoeta mailan hizkuntza bera osagai inportantea dela bere erabilera ikasteko orduan.

4. kompetentzia orokorraren arabera, ikasleek kontzientzia soziolinguistikoa izan behar dute derrigorrezko hezkuntza amaitzean, eta jabetuta egon behar dute inguruko errealitate eleanitzaz, eta hizkuntzen estatusa baldintzatzen duten eragileak ere ezagutu behar dituzte, eta bereganatuta izan behar dute planteamendu eleanitzaren beharra, euskara hizkuntza nagusia izanik, beti ere. Kompetentzia hau lortzeari garrantzi handia ematen zaio (4,23ko batezbestekoa), baina gai honetan aldeak ikusten dira lurralde, hizkuntza-eredu eta hezkuntza-sare ezberdinen artean, alde hau esanguratsua delarik hizkuntza-ereduen eta hezkuntza-sareen artean.

Konpetentzia orokorrak	Lurraldeak				Hizkuntza-ereduak			Hezkuntza sareak	
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	A	B	D	IK	KE
4	3.82	4.23	4.30	4.57	3.91	3.84	4.57	4.67	3.99

Balorazio kualitatiboak eta konpetentzia orokorrari buruzko komentarioak proposamenaren aldekoak dira gehienak. Badira proposamenarekin ados egonik egoera soziolinguistikoa eta honen aniztasuna kontuan izan behar dela nabarmentzen dutenak, eta zenbait eskualdetako errealitateak zaildu egiten duela konpetentzia guztiak, ezinbestekoak a priori, maila egokiarekin erdietsi ahal izatea. Badira ados ez daudenak euskara hizkuntza nagusia eta gaztelania ukimen-hizkuntza dela dioen definizioarekin, euren ustez elebitasunaz eta koofizialtasunaz mintzatu behar litzatekeelako, bereizketarik egin gabe bi hizkuntzen artean. Puntu beroa da hau, beste ahalegin bat merezi duena, formulazioan edo eritmoetan adostasun zabalagoa lortu ahal izateko.

5 eta 6 konpetentzia orokorrak literatura-konpetentziarekin daude lotuta. 5. konpetentziak literatura-ezaugarrien ezagutza du oinarri, literatura obraren ulermenari eta sormenari begira dago gehienbat, eta 6.a, berriz, literaturaren eta ikus-entzunezkoen erabileraz eta gozamenaz ari da.

Konpetentzia hauen balorazioa ere altua da (5. konpetentziak 3,95 du batez beste; 6.ak, berriz, 4,15), baina hala ere aurreko beste lau konpetentzien azpitik daude, 5. konpetentziaren kasuan batez ere. 5. konpetentzian, 4.ean bezala, alde nabarmenak daude hizkuntza-eredu eta hezkuntza-sare desberdinen artean.

Konpetentzia orokorrak	Lurraldeak				Hizkuntza-ereduak			Hezkuntza sareak	
	Araba	Bizkaia	Gipuzk	Nafarroa	A	B	D	IK	KE
5	3.83	3.92	4.00	4.00	3.74	3.68	4.15	4.24	3.78
6	4.17	4.13	4.13	4.43	4.13	3.79	4.30	4.28	4.06

Balorazio kualitatiboaren emaitzek erakusten dute DBHko Hizkuntza irakasleak garrantzi handiagoa ematen diotela hizkuntzari literaturari baino, baina balorazio kualitatiboetan ez dago aztarnarik ondorio garbiak ateratzeko zergatik den 5. konpetentziaren balorazioa besteena baino txikiagoa, eta ezta ere zergatik dagoen hain alde nabarmena hizkuntza-eredu eta hezkuntza-sare ezberdinen artean. Bada lorpenaren zailtasunaz eta bere zeharkakotasunaz ari den aztarnaren bat, baina ez dira azterna erabakigarriak.

Diagnostiko mailan, interesgarria da jakitea, parte hartu duten irakasleen arabera, ezagueraren, ulermenaren eta sormen literarioaren balorazioak inportantzia txikiagoa duela ahozko eta idatzizko ulermen eta espresioak eta gramatikak baino, baina, hala izan behar ote litzateke? Gogoeta egitea merezi duen gaia da, 5. konpetentzia aldatzea edo berrestea komeni den jakiteko.

Laburtuz, 1, 2, 3 eta 6 konpetentziak berretsita geratu dira ebaluazioaren ondoren. 4 eta 5 konpetentziak, era positiboan baloratuak izan diren arren, berrikustea komeni da, birformulatzeko edo bere hartan uzteko, kasuaren arabera.

1.7.2.2.- Konpetentzia bereziak

Iruzkina honetan, euskara, gaztelania eta ingelesa aipatu ditugu batera. Ez dugu tartean frantsesa sartzen, erantzun kopurua txikia delako eta ondorioz ezin delako atera. Ondoren egiten ditugun iruzkinak ulertzeko, kontuan izan behar da lotura dagoela hizkuntza guztientzat berdina diren konpetentzia orokorren eta hizkuntza bakoitzaren konpetentzia berezien artean. Honek erraztu egiten du hizkuntza ezberdinen arteko planteamendu integrala.

Konpetentzia orokorrak	Konpetentzia bereziak		
	Euskara	Gaztelania	Ingelesa
(1) Ahozko ulermena	1-2	1-2	1-2
(2) Mintzaera	3-4-5	3-4-5	3-4-5
(1) Idatzizko ulermena	6-7-8-9	6-7-8-9	6-7-8-9
(2) Idazkera	10-11-12	10-11-12	10-11
(3) Gramatika gogoeta	13	13	12
(4) Kontzientzia soziolinguistikoa	14-15	14	13
(5 eta 6) Konpetentzia literarioa	16-17-18-19-20	15-16-17-18	14-15
Batez besteko balorazioa	21	19	16

Euskara eta Gaztelaniako konpetentzia berezien maila berdina da (B2 maila), baina badira Euskararenak bakarrik diren konpetentzia berezi batzuk (15 eta 18). Lotura aurkitzen da Euskara, Gaztelania eta Ingelesaren konpetentzia berezien artean ere, baina ingelesaren kasuan hizkuntza maila apalagoa da (B1) eta ez dira sartzten hizkuntza literarioarekin eta literatur erreferente historikoekin zerikusia duten konpetentziak.

1.- Handia da Hizkuntza eta Literatura Arloko konpetentzia berezien onarpena : Euskarari, konpetentzia berezi guztiak 4tik gora baloratu dira, 16, 17, 18 eta 19a izan ezik. Gaztelanari, konpetentzia berezi guztiak 4tik gora baloratu dira, 17a izan ezik. Ingelesean gauza bera gertatzen da, 14 eta 15 konpetentziak kenduta.

2- Konpetentzia berezien batezbesteko balorazioa oso ona da hizkuntza guztietan (Euskarari item 19, 4.38 batez beste; Ingelesari item 16, 4.27 batez beste). Emaiza hauek adierazten dute Euskara, Gaztelania eta Ingeleseko proposamenez onarpen zabala dutela parte hartu duten irakasleen aldetik.

3.- Batezbesteko balorazioa positiboa da herrialde guztietan (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa), hezkuntza-sare ezberdinetan (Ikastolak eta Kristau Eskola) eta hizkuntza-eredu ezberdinetan (A, B, D):

Herrialdeak

	Euskara	Gaztelania	Ingelesa
Araba	4.45	4.40	4.11
Bizkaia	4.33	4.32	4.17
Gipuzkoa	4.65	4.44	4.33
Nafarroa	4.50	4.40	5.00

Hezkuntza-sareak

	Euskara	Gaztelania	Ingelesa
Ikastola	4.64	4.60	4.49
Kristau Estola	4.40	4.26	4.15

Hizkuntza-ereduak

	Euskara	Gaztelania	Ingelesa
A Eredua	4.28	4.29	4.00
B Eredua	4.56	4.22	4.05
D Eredua	4.64	4.63	4.50

Oso datu adierazgarria da, eta garrantzi handikoa gerora begira, jakitea hizkuntza-eredu eta hezkuntza-sare ezberdinetako irakasleek aldeko balorazioa egiten dutela Euskara, Gaztelania eta Ingeleseko proposamenez. Planteamendu eleanitz eta integratzaile baten inguruko sinergiak iragartzen dituen datua da. Xehetasun handiagoetara joz, pozgarria da ikustea D eredu irakasleak direla batezbesteko balorazio onena egiten dutenak bai Euskarako proposamenez (espero zitekeena), bai Gaztelaniakoez (batzuentzat harrigarriagoa izango dena) eta baita Ingelesekoez ere.

4.- Gutxien baloratzen diren konpetentzia bereziak Hizkuntza eta Literaturarekin lotutakoak dira (5. eta 6. konpetentzia orokorrak):

Konpetentzia bereziak	Euskara	Gaztelania	Ingelesa
Hizkuntzaren eta literaturaren oinarritzko ezaugarriak (Euskara, item 16; Gaztelania, item 15)	3.92	4.12	-
Literaturaren Historia (Euskara, item 17; Gaztelania, item 16)	3.90	4.07	-
Ahozko Literatura euskaraz (Euskara, item 18)	3.99	-	-
Ahozko eta idatzizko literatura-ekoizpena (Euskara, item 19; Gaztelania, item 11; Ingelesa, item 14)	3.81	3.91	3.79
Literaturaren erabilera eta gozamina (Euskara, item 20; Gaztelania, item 18; Ingelesa, item 15)	4.03	4.30	3.79

Emaitza hauek koherenteak dira eta lehen aipatu ditugun 5 eta 6 konpetentzia orokorren emaitzak berresten dituzte. Lehen esandakoak baliagarri izaten jarraitzen du. Garbi dago Euskara, Gaztelania eta Ingeleseko irakasleek, eta batez ere Euskarakoek, gutxiago baloratzen dituztela konpetentzia literario hauek besteak baino. Lehen planteatutako gaiak hortxe jarraitzen du: horrela izan behar al du? Nolanahi ere, gogoetarako geratzen den gaia da, eta bere garaian planteamendua aldatu edo berretsi egin beharko da.

5.- Laburtuz, aipatu berri ditugun literatura-konpetentzia bereziak, Euskara, Gaztelania eta Ingelesari dagozkienak, berrikusi egin behar dira. Hizkuntza ezberdinen beste konpetentzia bereziak berretsita geratu dira.

1.7.2.3.- Edukiak

Azterketa kualitatiboan kontzeptu-, prozedura- eta jarrera-edukiei buruzko iruzkin eta proposamenak biltzen dira, oso kontuan hartu beharrekoak, eta zenbait, eztabaidatu ondoren, hasierako proposamenaren hobegarri izan daitezkeenak. Zaila da hemen horien aukera bat egitea, baina badira hasierako proposamena hobetzen duten interes handiko proposamenak, behin-betiko proposamenean sartu beharrekoak. Bi gai zehatzetan iritzi ezberdinak agertzen dira, eta gogoeta sakonagoa merezi dute: bata, ea zer ulertzen den "euskal literatura"z (euskaraz idatzitako literatura ala euskaldunek idatzitako literatura), eta bestea, zer dela eta ezartzen zaien gaztelaniari eta frantsesari "ukipen-hizkuntza" kontzeptua. Gai hauei buruzko irizpideak argitzea komeni da, hizkuntza ezberdinez egiten den planteamendu integratzaile eta inklusiboaren filosofiatik. Pentsatzen dugu proposamen horiek txertatzeko pertsonarik egokienak curriculum-proposamenaren egileak direla.

Iruzkin ugari egin da proiektuaren inplementazio aroaz, hau da, giza baliabide handiagoen, irakasleen prestakuntzaren eta planteamenduarekin bat datozen material kurrikular koherenteen beharraz. Oso gai inportanteak dira, zalantzarik gabe, oso aintzat hartu beharrekoak, baina ez dira aro programatikoa honetakoak.

Laburbilduz, pentsatzen dugu:

- Proposamenaren balorazioa altua izan dela batez beste, bai konpetentzia orokorrena eta bai konpetentzia bereziarena, hezkuntza-sare, hizkuntza-eredu eta herrialde ezberdinen aldetik, eta, beraz, berretsita geratzen dela haren balioa.
- Literatura-konpetentzietan dagokienez, era positiboan baloratu diren arren, garbi dago Euskarako irakasleek zein Gaztelania eta Frantsesekoek beste konpetentziak baino gutxiago baloratzen dituztela. Egitate hau frogatuta geratu da konpetentzia orokorrak zein bereziak baloratzeko orduan. Gogoeta egin beharreko gaia da, bere garaian proposamena aldatzeko edo berresteko.
- Bi gai zehatzetan iritzi ezberdinak agertzen dira, eta gogoeta sakonagoa merezi dute: bata, ea zer ulertzen den "euskal literatura"z (euskaraz idatzitako literatura ala euskaldunek idatzitako literatura), eta bestea, zer dela eta ezartzen zaien gaztelaniari eta frantsesari "ukipen-hizkuntza" kontzeptua. Gai hauei buruzko irizpideak argitzea komeni da, hizkuntza ezberdinez egiten den planteamendu integratzaile eta inklusiboaren filosofiatik. Pentsatzen dugu proposamen horiek txertatzeko pertsonarik egokienak curriculum-proposamenaren egileak direla.
- Proposamen puntual interesgarri asko dago, batez ere eduki kontzeptualetan, eta komeni da berrikustea eta hasierako proposamenean txertatzea, planteamendu orokorrekiko koherentzia gordetzen duten heinean bederen.